



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

TXORI-BOX TAILERRA

“Txoribox” Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatzen duen ingurumen heziketa proiektu bat da eta honen helburu nagusia gizartea, eta bereziki adin gutxiko populazioa, fauna basatia eta bere ingurune naturala ezagutu, kontserbatu eta aztertzearen garrantziaz ohartaraztea da.

Helburu hau lortzeko, proiektuan habia-kutxak fabrikatu, jarri eta beren jarraipena egingo da, herriko kaskoan aurkitu ditzakegun hegaztiez baliaturik.

Horretarako, datorren **astlehenean, otsailaren 29an, 17:30tan** udalak habia-kutxak egiteko tailerra antolatu du, **Don Juanena eraikinean**.

Tailerrean parte hartzeko adin muga 9-12 urte bitartekoa da eta, habia kopuru mugatua dugula eta, 16 haurrek parte hartu ahal izango dute. Ikusten bada, haur asko tailerrean parte hartu ezinik gelditzen dela, beste tailer bat egitea aztertuko litzake.

Izena emateko deitu udaletxera (Telf. 943690235) 9tatik 15tara.

Besterik gabe, zuen interesekoa izango delakoan, agurtzen naiz.

Alkizan, 2016ko otsailaren 24ean
ALKATEA

Jon Umerez Urrezola